

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez** Lehendakariari, “**zor publikoaren aurreikuspenari**” buruz, osoko bilkuran erantzuteko.

ZIOA

Maiatzaren 10ean Patxi Lopez lehendakariari euskal telebista publikoan egin zioten elkarrizketan, zor publikoari buruz galdetuta, behin eta berriz esan zuen hemendik aurrera zor publikoa murriztu egingo zela. Zehazki esan zuen, “a partir de ahora vamos a empezar a disminuirlo (la deuda pública) rápidamente ya que, afortunadamente, también los ingresos están aumentando en este país”. Elkarrizketatzaileak gogorarazi zion zorra bost aldiz biderkatu dela legegintzaldia hasi zenetik eta horri, Lehendakariak, ildo beretik jarraitu zion erantzuten, hau da, hemendik aurrera zor publikoa murriztu egingo dela: “estoy convencido de que podremos dar cumplida cuenta de la deuda antes de lo que parece” (...) “y eso quiere decir que vamos a poder tener recursos para poder seguir prestando los servicios públicos y empezar ya a hacer frente a la deuda”.

Beraz, argi eta garbi aditzera eman zuen zor publikoa gehitzen ez ezik, gutxitzen hasiko dela hemendik aurrera.

Aldiz, martxoaren 25ean sinatutako idatziz erantzuteko galdera baten erantzunean, ekonomia sailburu Carlos Agirrek adierazi zuen, 2013an zor bizia 8.228,10 eurokoa izango dela, hau da, BPGren %10,82; zehazki esan zuen 2010ean, 4.527,10 milioi; 2011n, 5.941,10 milioi; 2012an, 7.137,10 milioi; eta, 2013an, 8.228,10 milioi eurokoa izan zela departamenduaren aurreikuspenen arabera. Gaineratu zuen zor horrek sortuko duen interesgatiko gastuen inpaktuaren zenbateko ekonomikoa 740,43 milioi euro izango dela.

Bi adierazpen horien arteko kontraesan nabarmena ikusirik, ezinbesteko deritzogu sortutako nahasmena argitzea eta, beraz, hurrengo interpelazioa egiten dio, Patxi Lopez lehendakariari:

INTERPELAZIOA

Azal dezan zor publikoaren eboluzioaren aurreikuspena aldatu egin duen Eusko Jaurlaritzak, eta hala bada, zeren arabera aldatu duen; oro har, argi dezala ze zor aurreikuspen darabilen, gaurtik hasi eta 2013 bitarteko epeari dagokionean.

Gasteizen, 20010eko maiatzaren 12an

**Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea**